



**SECCIÓN II**  
**ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA**

**Ayuntamiento de Sopuerta**

**Aprobación definitiva de la modificación de los artículos 6 y 8 del Título III de la Ordenanza municipal reguladora del funcionamiento interno del parking de autocaravanas de Sopuerta.**

En sesión plenaria extraordinaria celebrada con fecha 30 de abril de 2024 se acordó aprobar inicialmente la modificación de los artículos 6 y 8 del Título III de la Ordenanza Municipal reguladora del funcionamiento interno del parking de autocaravanas de Sopuerta.

Esta modificación de la Ordenanza se sometió a información pública conforme a lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/85 de 2 de abril reguladora de las bases de Régimen Local por espacio de treinta días hábiles a contar a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Transcurrido el plazo de exposición al público, y no habiéndose presentado dentro del mismo, reclamación alguna, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las bases del régimen Local, se procede a la publicación de la ordenanza aprobada definitivamente. La modificación de la presente Ordenanza entrará en vigor una vez se haya publicado su texto íntegramente en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y haya transcurrido el plazo de 15 días hábiles previsto en el artículo 65.2 del mencionado texto legal.

En Sopuerta, a 16 de julio de 2024.—El Alcalde, Agustín Cuadrado Torre

**ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL FUNCIONAMIENTO  
INTERNO DEL PARKING DE AUTOCARAVANAS**

La regulación que se contiene en la presente ordenanza pretende dar una solución a la necesidad del municipio de disponer de un parking de autocaravanas, con zona de aparcamiento, estancia, baños y duchas.

En este sentido, a fin de asegurar el adecuado desarrollo de esta actividad turística, de forma que se garantice el respeto al entorno rural, la seguridad de las autocaravanas, así como la debida utilización de sus instalaciones y servicios, se elabora la presente ordenanza con base en la potestad reglamentaria y de autoorganización prevista en el artículo 4.1. a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, así como en la competencia en materia de información y promoción de la actividad turística de interés y ámbito local prevista en el artículo 25.2. h) de la misma norma.

Todo ello viene a justificar la adecuación de la norma a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, cumpliendo con ello la obligación de las Administraciones Públicas de actuar de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

**TÍTULO I****DISPOSICIONES GENERALES****Artículo 1. — Objeto**

La ordenanza municipal tiene por objeto garantizar y regular los derechos de los usuarios y el nivel de calidad que debe reunir el parking de autocaravanas.

**Artículo 2. — Características de alojamiento y tipo de gestión**

El parking de autocaravanas constituye un establecimiento en el que se prestan servicios de estacionamiento en autocaravana mediante su correspondiente precio.

El ayuntamiento gestionará el parking, de conformidad con el artículo 85 de la ley 7/1985, de Bases del Régimen Local a través de gestión indirecta, mediante las distintas formas previstas en la normativa de contratos del sector público.

**TÍTULO II****DERECHOS Y DEBERES DE LOS USUARIOS****Artículo 3. — Usuarios**

Sólo se admitirá la entrada a personas mayores de edad, y a los menores de 18 años que vayan acompañados o con autorización de una persona mayor de edad y que se haga responsable de su conducta.

A la llegada el cliente tendrá que acreditar su identidad a través de la aplicación del teléfono móvil que el Ayuntamiento de Sopuerta establecerá al efecto, por contacto con la máquina de registro que se instalará en la barrera de acceso al parking, y que corresponderá con la identidad de la persona en cuyo nombre se realizó la reserva del aparcamiento.

**Artículo 4. — Derechos de los usuarios**

Serán derechos de los usuarios:

1. A acceder a los servicios, estacionamiento de autocaravanas y utilización de los baños y duchas, así como a recibir asistencia sin discriminación por razón de sexo, raza, religión, ideología o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.
2. A un trato digno tanto por parte del personal de la entidad, centro o servicio, como de los otros usuarios.

**Artículo 9.— Régimen de admisiones y bajas:**

La admisión de los usuarios se realizará a través de la empresa adjudicataria o de Enkarterri, mediante formulario de reserva en la página web del municipio.

Las bajas podrán ser:

- Voluntaria: a petición del interesado.
- Por finalización de los días establecidos.
- Por expulsión.
- Por cierre del parking.

**Artículo 10.— Horario**

El parking permanecerá abierto en horario de 8:00 a 22:00 horas. Los usuarios respetarán el silencio necesario para el descanso nocturno.

**Artículo 11.— Visitas**

Podrán realizarse visitas de otras personas distintas de los usuarios, quedando terminantemente prohibido que accedan con vehículos, o a parcelas donde estén instaladas otras autocaravanas, así como obstaculizar los accesos o zonas comunes.

El horario de visitas es de 8:00 a 20:00 horas.

El ayuntamiento de Sopuerta se reserva el derecho a desalojar a los usuarios del parking que reincidan en visitas no autorizadas.

**Artículo 12.— Horas de silencio**

El horario de silencio será de 22:00 a 8:00 horas, pudiendo acceder o salir del parking sólo peatones en absoluto silencio. Durante este horario las puertas y la barrera de acceso a vehículos permanecerán cerradas, quedando prohibida la circulación a cualquier tipo de vehículo en el interior del parking, salvo expresa autorización y/o emergencia.

Durante las horas de descanso, se ruega a los usuarios evitar en lo posible producir sonidos que resulten molestos para conciliar el sueño.

Fuera de las horas de silencio y de descanso, se debe procurar que los ruidos que se produzcan no perturben la tranquilidad de los usuarios, para poder garantizar una adecuada convivencia entre todos.

El volumen de cualquier aparato de audio, vídeo o televisión, así como de cualquier aparato eléctrico, se mantendrá de manera que no perturbe a los demás usuarios, debiendo ser mínimo en el horario de silencio establecido en este reglamento.

En caso de no cumplirse con estas normas el Ayuntamiento de Sopuerta o la empresa adjudicataria que gestiona el parking podrá adoptar las medidas necesarias al respecto, llegando incluso a la expulsión del parking de los usuarios que perturben estas normas.

**Artículo 13.— Normas de uso**

- Los usuarios del parking deberán cuidar las normas sociales de convivencia e higiene, vestir y calzar adecuadamente en los lugares comunes.
- Se respetarán los horarios establecidos, especialmente los relativos al descanso nocturno.
- Deberán evitarse consumos innecesarios y excesivos de agua, electricidad, productos de limpieza, etc.
- Los usuarios deberán prestar atención a la conservación de las instalaciones del parking. Cuando finalice su estancia deberán dejar el parking limpio, en las mismas condiciones que se lo encontraron.
- En caso de que surgiera algún imprevisto en relación con el uso de las instalaciones, habrán de seguirse las indicaciones de la empresa responsable de la gestión del parking.





3. Al secreto profesional de los datos personales.
4. A la máxima intimidad en función de las condiciones estructurales del recinto.
5. A conocer en todo momento el precio de los servicios disponibles, y a que les sean comunicadas con la antelación suficiente las variaciones de aquél o las modificaciones esenciales en la prestación del servicio.
6. Derecho a queja ejercido mediante hojas de reclamación que estarán a disposición de los usuarios y de sus representantes legales.

**Artículo 5.— Deberes de los usuarios**

Serán obligaciones de los usuarios los siguientes:

1. Respetar las convicciones políticas, morales y religiosas del resto de los usuarios, así como del personal que presta servicios.
2. Conocer y cumplir las normas determinadas en esta ordenanza de utilización del parking.
3. Respetar el buen uso de las instalaciones y medios del parking y colaborar en su mantenimiento.
4. Poner en conocimiento de la empresa que gestiona el parking las anomalías o irregularidades que se observen en el mismo.

**TÍTULO III****NORMAS DE FUNCIONAMIENTO****Artículo 6.— Servicios**

Servicio de estacionamiento: Comprende la estancia nocturna con una capacidad de 5 personas por autocaravana.

Servicio de higiene: Comprende la infraestructura básica, en relación con la capacidad de usuarios, que facilite el aseo personal, así como la limpieza general y permanente del parking.

**Otros servicios**

Comprende las instalaciones para permitir vaciar aguas residuales, recargar baterías, así como servicio de electricidad.

El servicio de vaciado de aguas negras se podrá realizar sin la necesidad de pernoctar.

**Artículo 7.— Solicitud de estancia y reserva de plazas**

La solicitud de plaza deberá realizarse mediante formulario habilitado en la página web del ayuntamiento de Sopuerta.

Las tarifas vigentes se encontrarán expuestas en la página web del municipio. Los precios se aplicarán de acuerdo con el número de noches pernoctadas. La jornada de estacionamiento finalizará a las 12:00 horas. Las salidas posteriores a las 12:00 horas supondrán una jornada más. El parking establece un precio mínimo por parcela.

**Artículo 8.— Tarifas**

	Temporada baja (€)	Temporada media (€)	Temporada alta (€)
PARCELA / DIA	8,50	9,50	10,50

El pago se realizará con anterioridad al disfrute del servicio, a través de la página web o de la aplicación de la empresa adjudicataria del servicio.

La temporada baja será entre el 1 de octubre al 31 de marzo.

La temporada media será entre el 1 de abril al 31 de mayo.

La temporada alta será entre el 1 de junio al 31 de septiembre.

El parking permanecerá abierto todo el año.



Conforme al artículo 21.1.n) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la potestad sancionadora corresponderá al Alcalde.

Las infracciones que cometan los usuarios serán anotadas en la ficha personal de cada uno.

**Artículo 18.— Infracciones**

1. Se consideran faltas leves los incumplimientos a esta Ordenanza que no tengan la consideración de infracciones graves o muy graves.

2. Se consideran infracciones graves:

- La reincidencia en infracciones leves.
- La reiterada desobediencia a las instrucciones de la gestión del parking.
- La utilización de las dependencias del parking para fines distintos de los que constituyen su objeto específico.
- El consumo de alcohol o drogas en las dependencias del parking.
- La negligencia grave en el cuidado y conservación de las instalaciones.
- El no respeto a las normas de convivencia, especialmente durante el periodo de silencio.
- No cumplimiento de las obligaciones de pago de las tarifas del parking.

3. Se consideran infracciones muy graves:

- La reincidencia en infracciones graves.
- La perturbación de la convivencia que afecte de manera grave y directa a la tranquilidad o al ejercicio de los derechos legítimos de otros usuarios del parking.
- El deterioro grave de las dependencias del parking o de cualquiera de sus Elementos.

**Artículo 19.— Sanciones**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 141 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, salvo previsión legal distinta, las multas por infracción de Ordenanzas locales deberán respetar las siguientes cuantías:

- a) Infracciones muy graves: hasta 3.000 euros.
- b) Infracciones graves: hasta 1.500 euros.
- c) Infracciones leves: hasta 750 euros.

En este caso, las sanciones que se impondrán a los infractores serán las siguientes:

1. Por comisión de infracciones leves, multa de 250 a 750 euros.
2. Por comisión de infracciones graves:
  - Multa de 751 a 1.500 euros.
  - Expulsión inmediata del parking.
3. Por comisión de infracciones muy graves:
  - Multa de 1.501 a 3.000 euros.

**Artículo 20.— Prescripción**

Conforme al artículo 30 de la ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, las infracciones leves prescribirán a los seis meses, las graves a los dos años y las muy graves a los tres años.

Las sanciones impuestas por faltas leves prescribirán al año, las sanciones impuestas por faltas graves a los dos años y las sanciones impuestas por faltas muy graves a los tres años.

El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido. Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento sancionador, reanudándose el plazo de





- En el interior del parking, las autocaravanas deben circular a una velocidad inferior a 10 km/h. La circulación está prohibida entre las 22:00 y las 8:00 horas.
- El estacionamiento en las zonas fuera de las parcelas está estrictamente prohibido y no deben entorpecer la circulación o la parcela de otro usuario.
- Toda persona se abstendrá de cualquier acción que pueda perjudicar a la propiedad, la higiene o el aspecto del parking, en especial las instalaciones y los sanitarios. Se prohíbe arrojar aguas residuales fuera de los lugares destinados a tal fin. Los restos de comida, papeles y desechos de cualquier tipo deberán guardarse en bolsas adecuadas y encargarse de depositarlos en cubos de basura.
- Se prohíbe fregar o lavar la ropa en los baños o duchas del parking.
- Se respetarán las plantas y demás vegetación. Se prohíbe clavar clavos en los árboles, cortar ramas o hacer plantaciones. No se permite delimitar la parcela de forma particular ni cavar en el suelo. Cualquier desperfecto de la vegetación, de los setos, del terreno o de las instalaciones será repercutido al causante. La parcela ocupada deberá quedar tras su uso, en el mismo estado que tenía previamente.
- Están prohibidas las barbacoas.
- Cada usuario se responsabiliza de sus objetos personales y hará constar a el Ayuntamiento de Sopuerta la presencia de cualquier persona sospechosa. El ayuntamiento no se hace responsable de los hurtos o robos que se pudieran producir, por lo que se ruega a los usuarios que tomen las precauciones oportunas para salvaguardar sus pertenencias.
- No se podrá realizar ningún juego que sea violento o molesto.
- Los niños estarán siempre bajo la supervisión y responsabilidad de sus padres o tutores legales.
- Por motivos de seguridad y buena convivencia, queda prohibido el consumo de bebidas alcohólicas y todo tipo de drogas en las dependencias del parking, así como sacar al exterior de las autocaravanas muebles, colchones, enseres u objetos de equipamiento.

**Artículo 14.— Animales**

Se admiten con su cartilla y siempre que vayan atados. Se evitará que los animales domésticos hagan sus necesidades en las zonas comunes, y en caso de que lo hagan, el propietario deberá recogerlas.

**Artículo 15.— Basuras**

Los usuarios deberán hacerse cargo de su basura. Queda terminantemente prohibido dejar la basura en la parcela. No se pasará a recoger.

**Artículo 16.— Comunicación**

La presente ordenanza se encuentra publicada en la página web del Ayuntamiento de Sopuerta. Se facilitará un ejemplar a todo usuario que lo solicite.

**TÍTULO IV  
INFRACCIONES Y SANCIONES****Artículo 17.— Procedimiento sancionador**

El incumplimiento de lo dispuesto en el presente Reglamento constituye infracción administrativa sancionable.

Las sanciones que procedan solo podrán imponerse previa tramitación del correspondiente expediente, de conformidad con lo dispuesto en el Capítulo III del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.



prescripción si el expediente sancionador estuviera paralizado durante más de un mes por causa no imputable al presunto responsable.

El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción. Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento de ejecución, volviendo a transcurrir el plazo si aquel está paralizado durante más de un mes por causa no imputable al infractor.

**Artículo 21.— Graduación de las sanciones**

La cuantía de las sanciones se graduará teniendo en cuenta la naturaleza de los perjuicios causados, la intencionalidad, reincidencia y demás circunstancias que concurrieren.

**Artículo 22.— Resarcimiento de los daños causados**

En todo caso, si las conductas sancionadas hubieran causado daños y perjuicios a bienes municipales, la resolución del procedimiento podrá declarar:

- La exigencia al infractor de la reposición a su estado originario de la situación alterada por la infracción.
- La indemnización por los daños y perjuicios causados, cuando su cuantía haya quedado determinada durante el procedimiento.

**DISPOSICIÓN FINAL**

La presente ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y publicada íntegramente en el «Boletín Oficial de Bizkaia», manteniendo dicha vigencia hasta su modificación o derogación expresa.







## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Sopuertako Udala

**Sopuertako autokarabaren aparkalekuaren barne funtzionamendua arautzen duen udal Ordenantzaren III. Tituluko 6. eta 8. artikuluen aldaketaren behin betiko onarpena.**

2024ko apirilaren 30ean egindako ezohiko osoko bilkuran erabaki zen hasierako onarpena ematea Sopuertako autokarabaren aparkalekuaren barne funtzionamendua arautzen duen Udal Ordenantzaren III. Tituluko 6. eta 8. artikuluen aldaketari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ordenantzaren aldaketa hau jendaurrean jarri zen hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Jendaurrean egondako epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, behin betiko onartutako ordenantza argitaratuko dugu. Ordenantza honen aldaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu eta lege testu horren 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igaro ondoren jarriko da indarrean.

Sopuertan, 2024ko uztailaren 16an.— Alkatea, Agustin Cuadrado Torre

**AUTOKARABANEN APARKALEKUAREN BARNE FUNTZIONAMENDUA  
ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA**

Ordenantza honetan jasotzen den araudiak irtenbide bat eman nahi dio udalerrriak autokarabanen aparkaleku bat izateko duen beharrari, aparkaleku, egoteko leku, komun eta dutxekin.

Ildo horretan, jarduera turistiko hori behar bezala garatzen dela ziurtatzeko, eta landa ingurunearekiko errespetua, autokarabanen segurtasuna eta horien instalazio eta zerbitzuen erabilera egokia bermatzeko, ordenantza hau egiten da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluan oinarrituta —erregelamenduak egiteko eta autoantolatze ahalak—, eta arau beraren 25.2. h) artikuluan xedatutakoan oinarrituta —tokiko turismo jarduerari sustatzeko eta informazioa emateko eskumena—.

Horrek guztiak justifikatzen du araua Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioetara egokitzea, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu beharri dagokionez: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

**I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.— Xedea**

Udal ordenantzaren helburua da autokarabanen aparkalekuaren erabiltzaileen esku-bideak eta izan behar duen kalitate maila bermatzea eta arautzea.

**2. artikulua.— Ostatu ezaugarriak eta kudeaketa mota**

Autokarabanen aparkalekua, dagokion prezioaren bidez, autokarabanen aparkatzeko zerbitzuak ematen dituen establezimendu bat da.

Udalak kudeatuko du aparkalekua, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legearen 85. artikuluekin bat etorriz, zeharkako kudeaketaren bidez, sektore publikoko kontratuen araudian xedatutako moduen bidez.

**II. TITULUA****ERABILTZAIILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK****3. artikulua.— Erabiltzaileak**

Adin nagusikoei baino ez zaie sartzen utziko, eta 18 urtetik beherakoei, baldin eta adin nagusiko pertsona batek lagunduta badoaz edo haien jokabidearen erantzule egiten den adin nagusiko pertsona baten baimenarekin badoaz.

Iristean, bezeroak bere nortasuna egiaztatu beharko du Sopusertako Udalak horretarako ezarriko duen telefono mugikorreko aplikazioaren bidez, aparkalekura sartzeko hesian instalatuko den erregistro makinarekin kontaktua eginda, zeina bat etorriko den aparkalekua erreserbatu duen pertsonaren nortasunarekin.

**4. artikulua.— Erabiltzaileen eskubideak**

Hauek izango dira erabiltzaileen eskubideak:

1. Zerbitzuak eskuratzeko, autokarabanak aparkatzeko eta bainugelak eta dutxak erabiltzeko, baita sexu, arraza, erlijio, ideologia edo beste edozein baldintza edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik gabe laguntza jasotzeko ere.
2. Tratu duina jasotzea, bai erakunde, zentro edo zerbitzuko langileen aldetik, bai beste erabiltzaileen aldetik.
3. Datu pertsonalen sekretu profesionala.



4. Ahalik eta intimitatetik handiena, esparruaren baldintza estrukturalen arabera.
5. Une oro eskuragarri dauden zerbitzuen prezioa ezagutzeko eskubidea, eta prezioan izandako aldaketak edo emandako zerbitzuaren funtsezko aldaketak behar besteko aurrerapenez jakitea.
6. Kexatzeko eskubidea, erabiltzaileen eta haien legezko ordezkarien eskura egongo diren erreklamazio orrien bidez.

**5. artikulua. — Erabiltzaileen betebeharrak**

Hauek izango dira erabiltzaileen betebeharrak:

1. Gainerako erabiltzaileen eta zerbitzuak ematen dituzten langileen iritzi politiko, moral eta erlijiosoak errespetatzea.
2. Aparkalekua erabiltzeko ordenantza honetan zehaztutako arauak ezagutu eta betetzea.
3. Aparkalekuko instalazioen eta bitartekoen erabilera egokia errespetatzea eta horiek mantentzen laguntzea.
4. Aparkalekua kudeatzen duen enpresari bertan ikusten diren anomaliak edo irregularitasunak jakinaraztea.

II. TITULUA  
FUNTZIONAMENDU ARAUAK

**6. artikulua. — Zerbitzuak**

Aparkatzeko zerbitzua: Gaueko egonaldia hartzen du, autokarabana bakoitzeko 5 pertsonako edukierarekin.

Higiene zerbitzua: Norberaren garbitasuna eta aparkalekuaren garbiketa orokorra eta iraunkorra errazten dituen oinarritzko azpiegitura da, har daitezkeen erabiltzaile kopuruari dagokionez.

Beste zerbitzu batzuk: Ur zikinak husteko, bateriak kargatzeko eta elektrizitate zerbitzurako instalazioak hartzen ditu.

Ur beltzak husteko zerbitzua erabili ahal izango da, bertan lo egin behar izan gabe.

**7. artikulua. — Egonaldirako eskaera eta plazak gordetzea**

Plazaren eskaera Sopuertako udalaren webgunean prestatutako formularioaren bidez egin beharko da.

Indarrean dauden tarifak udalerraren webgunean egongo dira ikusgai. Prezioak emandako gau kopuruaren arabera aplikatuko dira. Aparkatzeko epea 12:00etan amaituko da. 12:00etatik aurrerako irteerak egun bat gehiago izango dira. Aparkalekuak partzela bakoitzeko gutxieneko prezio bat ezartzen du.

**8. artikulua. — Tarifak**

	Behe denboraldia (€)	Denboraldi ertaina (€)	Goi denboraldia (€)
PARTZELA / EGUNA	8,50	9,50	10,50

Zerbitzua erabili aurretik ordainduko da, webgunearen bidez edo zerbitzua esleitu zaion enpresaren aplikazioaren bidez.

Behe denboraldia urriaren 1etik martxoaren 31ra izango da.

Denboraldi ertaina apirilaren 1etik maiatzaren 31ra izango da.

Goi denboraldia ekainaren 1etik irailaren 31ra izango da.

Aparkalekua urte osoan egongo da zabalik.



**9. artikulua.— Onarpenen eta bajen araubidea**

Erabiltzaileak enpresa esleipendunak edo Enkarterrik onartuko ditu, udalerrriaren webgunean erreserbatzeko formularioaren bidez.

Bajak honelakoak izan daitezke:

- Borondatezkoa: interesdunak eskatuta.
- Zehaztutako egunak amaitzeagatik.
- Kanporatzeagatik.
- Aparkalekua ixteagatik.

**10. artikulua.— Ordutegia**

Aparkalekua 8:00etatik 22:00etara egongo da zabalik. Erabiltzaileek gaueko atsederako beharrezkoa den isiltasuna errespetatuko dute.

**11. artikulua.— Bisitak**

Erabiltzaile ez diren beste pertsona batzuek bisitak egin ahal izango dituzte, baina erabat debekatuta egongo da ibilgailuekin edo beste autokarabana batzuk instalatuta dauden partzeletara sartzea, baita sarbideak edo eremu komunak oztopatzea ere.

Bisiten ordutegia 08:00etatik 20:00etara da.

Sopuertako Udalak baimenik gabeko bisitak hartzen dituzten aparkalekuaren erabiltzaileak kanporatzeko eskubidea erreserbatzen du.

**12. artikulua.— Isiltasun orduak**

Isiltasun ordutegia 22:00etatik 8:00etara izango da, eta aparkalekura oinezkoak bakarrik sartu edo irten ahal izango dira, erabat isilik. Ordutegi horretan, ibilgailuak sartzeko ateak eta hesia itxita egongo dira, eta debekatuta egongo da aparkalekuaren barruan edozein ibilgailu motatan zirkulatzea, berariazko baimena izan edo larrialdia gertatu ezean.

Atseden orduetan, erabiltzaileei eskatzen zaie, ahal den neurrian, lo egiteko gogaikarriak diren soinuak egitea saihesteko.

Isiltasun eta atseden orduetatik kanpo, egindako zaratek erabiltzaileen lasaitasuna ez oztopatzen saiatu behar da, guztien arteko bizikidetzaren egokia bermatu ahal izateko.

Audio, bideo edo telebistako edozein aparaturen bolumena, baita edozein gailu elektrikorena ere, gainerako erabiltzaileak ez asaldatzeko moduan jarriko da, eta erregelamendu honetan ezarritako isiltasun ordutegian minimoa izan beharko da.

Arau hauek betetzen ez badira, Sopuertako Udalak edo aparkalekua kudeatzen duen enpresa esleipendunak horretarako behar diren neurriak hartu ahal izango ditu, eta, are, arauak urratzen dituzten erabiltzaileak aparkalekutik kanporatu ahal izango dituzte.

**13. artikulua.— Erabiltzeko arauak**

- Aparkalekuaren erabiltzaileek bizikidetzako eta higieneko arau sozialak zaindu beharko dituzte, eta leku komunetan behar bezala jantzi beharko dute.
- Ezarritako ordutegiak errespetatuko dira, bereziki gaueko atsedenaldiari dagozkionak.
- Ur, elektrizitate, garbiketa produktu eta abarren alferrikako eta gehiegizko kontsumoak saihestu beharko dira.
- Erabiltzaileek arreta jarri beharko dute aparkalekuko instalazioak zaintzeko. Egoaldia amaitzen dutenean aparkalekua garbi utzi beharko dute, aurkitu zuten baldintza berberetan utzita.
- Instalazioen erabilerari dagokionez ustekaberen bat sortuz gero, aparkalekua kudeatzeko ardura duen enpresaren jarraibideei jarraitu beharko zaie.
- Aparkalekuaren barruan, autokarabaneak 10 km/h baino abiadura txikiagoan zirkulatu behar dute. Zirkulazioa debekatuta dago 22:00etatik 8:00etara.



- Partzeletatik kanpoko eremuetan aparkatzea erabat debekatuta dago, eta ez da beste erabiltzaile baten zirkulazioa edo partzela oztopatu behar.
- Pertsona guztiek uko egingo diote aparkalekuaren jabetzari, higieneari edo itxurari kalte egin diezaiokeen edozein ekintzari, bereziki instalazioei eta komunei dago-kienez. Debekatuta dago ur zikinak horretarako dauden lekuetatik kanpo botatzea. Edozein motatako janari, paper eta hondakinen poltsa egokietan gorde beharko dira, eta zaborrontzietan utzi.
- Debekatuta dago aparkalekuko komunetan edo dutxetan harrikoa egitea edo arro- pa garbitzea.
- Landaredia errespetatuko da. Debekatuta dago zuhaitzetan iltzeak sartzea, adar- rrek moztea edo landaketak egitea. Ezin da partzela modu partikularrean mugatu, ezta lurtean zulorik egin ere. Landarediari, heskaiari, lurrari edo instalazioei egin- dako kalte oro egileari jasanaraziko zaio. Okupatutako partzela erabili ondoren aurretik zuen egoera berean geratu beharko da.
- Barbakoak debekatuta daude.
- Erabiltzaile bakoitzak bere objektu pertsonalez arduratuko da, eta Sopuertako Udalari adieraziko dio pertsona susmagarriren bat badago. Udalak ez du bere gain hartzen gerta daitezkeen ebasketen edo lapurreten erantzukizunik, eta, beraz, era- biltzaileei eskatzen zaie neurri egokiak har ditzatela beren gauzak babesteko.
- Ezingo da indarkeriazkoa edo gogaikarria den jokorik egin.
- Haurrak beti egongo dira gurasoen edo legezko tutoreen ikuskaritzapean eta eran- tzukizunpean.
- Segurtasun eta bizikidetzaren egokirako, debekatuta dago aparkalekuko gunee- tan edonolako edari alkoholodunak eta drogak kontsumitzea, baita autokarabanetatik kanpo altzariak, koltxoak, tresnak edo ekipamenduko objektuak ateratzea ere.

**14. artikulua. — Animaliak**

Beren kartilla badute onartuko dira, eta betiere lotuta badoaz. Etxeko animaliek beren eginbeharrak eremu komunetan egitea saihestuko da, eta, hala egiten badute, jabeak jaso egin beharko ditu.

**15. artikulua. — Zaborrak**

Erabiltzaileek beren zaborraz arduratu beharko dute. Erabat debekatuta dago zabo- rra partzelan uztea. Ez da inor jasotzera pasatuko.

**16. artikulua. — Komunikazioa**

Ordenantza hau Sopuertako Udalaren webgunean dago argitaratuta. Ale bat emango zaio eskatzen duen erabiltzaile orori.

**IV. TITULUA****ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK****17. artikulua. — Zehapen prozedura**

Erregelamendu honetan xedatutakoa ez betetzea arau hauste administratibo zeha- garria da.

Zehapenak dagokien espedientea izapidetu ondoren bakarrik ezarri ahal izango dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Ti- tuluaren III. Kapituluaren eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoaren arabera.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.n) artikuluan xedatzen duenaren arabera, zehatzeko eskumena alkateari dagokio.

Erabiltzaileek egiten dituzten arau hausteak bakoitzaren fitxa pertsonalean idatziko dira.



**18. artikulua. — Arau hausteak**

1. Falta arintzat jotzen dira Ordenantza honen urraketak, baldin eta arau hauste astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez badira.

2. Arau hauste astuntzat jotzen dira:

- Arau hauste arinak berriro egitea.
- Aparkalekua kudeatzeko jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.
- Aparkalekuko guneak haien helburu espezifikoak osatzen duten helburuetarako ez beste batzuetarako erabiltzea.
- Alkoholaren edo drogen kontsumoa aparkalekuko guneetan.
- Instalazioen zaintzan eta kontserbazioan zabarkeria larria izatea.
- Bizikidetzara arauak ez errespetatzea, batez ere isiltasun tartean.
- Aparkalekuko tarifak ordaintzeko betebeharrak ez betetzea.

3. Arau hauste oso astuntzat jotzen dira:

- Arau hauste astunak berriro egitea.
- Bizikidetzara nahastea, aparkalekuaren beste erabiltzaile batzuen lasaitasunari edo eskubide legitimoen erabilerari zuzenean eta modu larrian eragiten badio.
- Aparkalekuko guneak edo edozein elementu larriki kaltetzea.

**19. artikulua. — Zehapenak**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 141. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Legeetan bestelako aurreikuspenik egin ezik, toki ordenantzen arau hausteen isunen kasuan zenbateko hauek errespetatu behar dira:

- a) Arau hauste oso astunetan: 3.000 euro arte.
- b) Arau hauste astunetan: 1.500 euro arte.
- c) Arau hauste arinetan: 750 euro arte.

Kasu honetan, arau hausleei honako zehapen hauek ezarriko zaizkie:

- 1. Arau hauste arinak egiteagatik: 250 eurotik 750 eurora bitarteko isuna.
- 2. Arau hauste astunak egiteagatik:
  - 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna.
  - Aparkalekutik berehala kanporatzea.
- 3. Arau hauste oso astunak egiteagatik:
  - 1.051 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.

**20. artikulua. — Preskripzioa**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 30. artikulua arabera, arau hauste arinek sei hilabetera preskribatuko dute, astunek bi urtera eta oso astunek hiru urtera.

Falta arinengatik ezarritako zehapenek urtebetera preskribatuko dute, falta astunen-gatik ezarritakoek bi urtera, eta falta oso astunengatik ezarritakoek hiru urtera.

Arau haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau hausteen preskripzio epea. Preskripzioa geldiarazi egingo da zehapen prozedura hasten denean, interesduna jakitun dela, eta preskripzio epea berriro hasiko da, baldin eta zehapen espedientea hilabete baina gehiagoz geldiarazita egon bada ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

Zehapenen preskripzio epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen. Preskripzioa geldiarazi egingo da bete-arazpen prozedura hasten denean, interesduna jakitun dela, eta preskripzio epeak berriro egingo du aurrera, baldin eta prozedura hilabete baina gehiagoz geldiarazita egon bada arau hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.



**21. artikulua.—Zehapenen graduazioa**

Zehapenen zenbatekoa mailakatzeko, egindako kalteen izaera, intentzionalitatea, berrerortzea eta gertatzen diren gainerako inguruabarrak hartuko dira kontuan.

**22. artikulua.—Egindako kalteak ordaintzea**

Nolanahi ere, zehatutako jokabideek udal ondasunei kalteak eta galerak eragin badizkiete, prozeduraren ebazpenak hau adierazi ahal izango du:

- Arau hausleari araua haustean aldatutako egoera lehengoratzeko eskatzea.
- Sortutako kalte eta galeren kalte ordaina, horien zenbatekoa prozeduran zehar zehaztu denean.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau behin betiko onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu ondoren jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatu edo indargabetu arte.

